

---

# UDAL ASANBLADAK UDAZKENA 2011

---

ASAMBLEAS MUNICIPALES OTOÑO 2011

---

# ARRAÑO

---

**ABENDUAK 13 DICIEMBRE 19:00h**

**HERRIKO PLAZAKO ARETOAN** SALA DE CONFERENCIAS MUNICIPAL

---

**AURRETIKO INFORMAZIOA** INFORMACIÓN PREVIA

---

**Orri honen bidez ARRAÑOko udal auzo asanblada presta-tzeko baliogarria gerta litekeen material bat eskaintzen da. Auzokideek asanblada nola garatuko den argi izan eta aurreko urteetako asanbladetan jorratutako gaiak oroitarazteko informazioa luzatzea da asmoa.**

**Era berean, aurrera begirako proposamenak egiteko erreferentzia egokia izango delakoan, 2009 eta 2010 urteetan ospaturiko asanbladetan jorratutako gaien laburpen bat ere jasotzen da.**

Mediante esta hoja, se ofrece un material que sirva para preparar la asamblea municipal de ARRAÑO, de manera que los vecinos puedan tener una idea clara de cómo será el desarrollo de la misma, y posean además información para refrescar los temas tratados en años anteriores.

Se ha realizado un extracto de los temas tratados en las asambleas de 2009 y 2010, entendiendo que estas pueden ser una referencia suficiente para proponer temas de cara al futuro.

---

# ARRAÑOKO UDAL ASANBLADA 2011. ALDEZ AURREKO INFORMAZIOA

ASAMBLEA MUNICIPAL DE ARRAÑO 2011. INFORMACIÓN PREVIA.

---

## 2009KO ARRAÑOKO ASANBLA- DAN JORRATUTAKO GAIAK

**ASISTENTZIA: 36 lagun (18 gizon eta 18 emakume)**

Auzokideek honako gai hauek plazaratu zituzten.

**IRISGARRITASUNA:** Nagusiei Irisgarritasun arazoek eguneroko bizimodua baldintzatzen diete; Hau kontuan izatea eskatzen da eta etorkizunera begira irtenbidea eman behar zaiola aipatzen da. Beste herritar batek galdetzen du ea irtenbideak emango zaizkie irisgarritasun arazoei. Irisgarritasun arazoei konponbide mekanikoa eman behar zaiola eskatzen da. ¿Parakerako sarbidea Arrañoetik nondik egingo da?

**OBRAK :** Auzoko lanak noiz amaituko diren galdetzen du herritar batek

**ZARAMA-ONTZIAK:** Probalekuaren ondoko zarama edukiontzia beteta egon ohi direla aipatzen da. Parkinaren ondean, bazterrean zaramaontzi bat jartzea eskatzen dute.

**ANTENA:** Batek antelaren inguruan galdetzen du, ea noiz kenduko den. Pertsona batek antenen inguruko ordenantza auzokideak babesteari begira egin behar dela aipatzen du.

**GARBIKETA.** Igoailuaren ondoko eskaileren garbiketa hobetu behar dela eskatzen da, goitik egin behar da, gune hori zikinago egoten baita, kristala hautsiak eta bestelakoak izan ohi dira.

**KABLEAK ETA KUTXATILAK:** Goi tentsioko kableak kentzea eskatzen da. Kableak direla eta, batek galdetzen du ea noizko lurperatuko diren telefonía kableak. Baten esanetan kutxatilik sarritan apurtzen dira.

**TRAFIKOA:** Herritar baten esanetan, asteburuetan, ibilbailuak aldapan behera doazela abiadura handiz ibiltzen dira

**KONPONKETAK:** Jose Mardones kalean baranda bat jartzea eskatzen da. Saski baloiko zelaiko saskiak ez daudela behar bezala lotuta aipatzen da.

**GIZARTE ETXEA:** Bolatokiaren ingurukoa gizarte etxerako ego-kitzea eskatzen da. .

**PARKEKO HORMA:** Zer egingo da parkearen goiko aldeko hormarekin?

**JOSE MARDONES KALEAN PARKEA:** Jose Mardones kaleko hirigintza-proiektuan aukerarik al dago parke bat egiteko?

## TEMAS ASAMBLEA MUNICIPAL DE ARRAÑO 2009

ASISTENCIA: 36 vecinos y vecinas. (H: 18, M: 18)

Los vecinos y vecinas del barrio plantearon los siguientes temas:

**ACCESIBILIDAD:** El problema de la accesibilidad está condicionando mucho la vida de algunas personas mayores; se pide que se tenga en cuenta esto y se plantee la opción de darle alguna solución a futuro. Otra persona pregunta si se les va a tener en cuenta a la hora de tomar en consideración las soluciones de accesibilidad. También se pide expresamente, que la solución de accesibilidad sea mecánica. ¿El acceso al parque desde Larraño desde dónde se hará?

**OBRAS:** Una persona pregunta por la fecha de finalización de las obras del barrio.

**CONTAINERS:** Alguien comenta que los containers de basura del Carrejo están siempre llenos. Se pide colocar un contenedor en el parking, en una esquina.

**ANTENA:** Una de las personas asistentes pregunta qué va a ocurrir con la antena; si se va a retirar. Una persona pide que se tenga en cuenta una normativa reguladora de las antenas mas garantista con los vecinos.

**LIMPIEZA.** Se solicita que mejore la limpieza de las escaleras junto al ascensor de subida al barrio desde Zumalakarregi, que se haga desde arriba, ya que esta parte suele estar mas sucia, con cristales rotos y otros elementos.

**CABLEADOS Y ARQUETAS:** Se pide que se retire el cableado aéreo de alta tensión. En relación con el tema de los cables, una persona pregunta por el tema del soterramiento de los cables de telefonía. Alguien comenta que las arquetas se rompen con regularidad.

**CIRCULACIÓN:** Una persona comenta, que sobre todo los fines de semana, los vehículos bajan a mucha velocidad por el barrio.

**ARREGLOS:** Se pide una barandilla en la bajada de la calle José Mardones. Se da cuenta de la falta de sujeción de las canastas en la cancha de baloncesto.

**LOCAL SOCIAL:** Se solicita el acondicionamiento de la zona de la bolera como local social.

**MURO DEL PARQUE:** ¿Qué va a ocurrir con el muro del límite superior del parque?

**PARQUE EN JOSÉ MARDONES:** ¿Habrà posibilidad de hacer un parque en la actuación urbanística de José Mardones?

# ARRAÑOKO UDAL ASANBLADA 2011. ALDEZ AURREKO INFORMAZIOA

ASAMBLEA MUNICIPAL DE ARRAÑO 2011. INFORMACIÓN PREVIA.

## 2010EKO ARRAÑOKO ASANBLA- DAN JORRATUTAKO GAIAK

**ASISTENTZIA: 25 lagun (12 gizon eta 13 emakume)**

**LAMUZA PARKEA:** Parkearen goiko aldeko horma, kenduko den ala ez, gazteluaren aztarnekina zer aurreikusten den eta konpontzeko asmorik dagoen eta nola, galdetzen da.

**SARBIDE MEKANIKOA:** Aceroseko etxeetarainoko lotura mekanikoaren beharra ikusten da. "Egokia izango zen irisgarritasun egitasmoa prestatzea persona guztiek euren etxeetarainoko sarbide izan dezaten eta ez dezala inork bere etxea utzi behar" Berritoki ere, sarbide mekanikoak Arraño auzorako ezinbestekoak direla aipatzen da. Auzokide guztion babesa du eskaera honek.

**ESPALOIAK:** Arrañoako igota, errepidean, espaloi falta dagoela kontuan izateko eskatzen da. Etxe-sifoietak garbiketa ez dela behar bezain egokia baten iritzi.

**BERLOJATZEAK:** Berlojatzeak eginez gero zehaztapen gehiago behar dira.

**IGOGAILUAREN MANTENTZE-ZERBITZUA:** Igogailuaren inguruko eremuaren mantentze-zerbitzua eskasa omen da. Zikinkeria ingurune horretan eta Mardones gaineko aparkalekutik harriak jausten direla aipatzen da. Beste auzokide batek eskailerak labainkor izaten direla eta argitasun falta dela aipatzen du. Lanparak hondatuta, lehenengo solairuraino baino ez da garbitzen eta goiko aldean botilatzen egiten dela.

**AINTZINEKO ZAHARRETxea :** Herritar batek zaharretxearen erabilera galdetzen du.

**AURRERAPEN ESKASA:** Herritar baten ustez bilera asko egiten deira eta bilera horietan guztietan arazo berberak azaltzen dira.

**ACEROSeko ETXEAK:** Aceroseko etxeetako urbanizazioa bideratzeko proiektua eskatzen da.

**ANTENA ETA KABLE-SAREA:** Antenaren lekualdatzea eta kable elektrikoaren lurperatzea eskatzen da.

**EUSKALTEL:** Arraño Euskaltel izateko aukera izango den galdetzen da.

**BARANDA:** Mardones kaleko jeitsierarako baranda bat eskatzen da.

## TEMAS ASAMBLEA MUNICIPAL DE ARRAÑO 2010

▪ Asistencia: 25 personas (13 mujeres / 12 hombres)

Se han eliminado del presente resumen los temas relativos al avance del PGOU por desconocerse a día de hoy cuál será su evolución. En cualquier caso seguirá un proceso propio de participación con asambleas o reuniones específicas.

**PARQUE LAMUZA:** Muro del borde superior del parque, si desapareciera o no, lo que se contempla para los restos del castillo y si se va a arreglar y cómo.

**ACCESO MECÁNICO:** Necesidad de continuar algún modo de acceso mecánico hasta las casas de Aceros. "Sería bueno que se plantease hacer un plan de accesibilidad para que toda persona pueda acceder a su casa y que nadie tenga que abandonar su vivienda". Reitera que los accesos mecánicos al barrio es el reto fundamental de Arraño. Hay unanimidad vecinal.

**ACERAS:** Tomar en consideración la falta de aceras en la subida a Arraño por la carretera. También menciona lo que, a su entender, es una limpieza insuficiente de las arquetas.

**REALOJOS:** Más concreción sobre realojos en caso de que se vayan a llevar a cabo.

**MANTENIMIENTO ASCENSOR:** El mantenimiento en el entorno del ascensor es insuficiente. Suciedad en ese entorno y que desde el aparcamiento situado encima de Mardones caen piedras. Otro vecino menciona el estado resbaladizo de las escaleras así como la falta de luz. Lámparas fundidas, sólo se limpia hasta el primer piso y en la parte de arriba se hace botellón.

**ANTIGUA RESIDENCIA:** Una vecina pregunta por el destino que se va a dar a la antigua Residencia.

**AVANCE ESCASO:** Una vecina plantea que se realizan muchas reuniones y que en todas ellas se plantean las mismas cuestiones.

**CASAS DE ACEROS:** Pregunta por el proyecto para resolver la urbanización de las Casas de Aceros.

**ANTENA Y CABLEADO:** Cambio de la antena y soterramiento de los cables eléctricos.

**EUSKALTEL:** Se pregunta si se va a tener Euskaltel en Arraño.

**BARANDILLA:** Se pide una barandilla en la bajada de Mardones.

---

# ARRAÑOKO UDAL ASANBLADA 2011. ALDEZ AURREKO INFORMAZIOA

ASAMBLEA MUNICIPAL DE ARRAÑO 2011. INFORMACIÓN PREVIA.

---

## GAIORDEN PROPOSAMENA:

- 1.- Gaiorden proposamenaren onarpena.
- 2.- Hurrengo auzo asanbladen mekanismoari buruzko iritziak eskatuko ditu Udalak.
- 3.- Ekaineko hauteskunderen ostean sortutako Udalbatza berriaren ostean, Gobernu Taldeko kide batek Udalaren egungo egoeraren berri eman-  
go du: egoera ekonomikoa, orain arte emandako urratsak, Aldundia eta gainerako erakundeekin izandako harremanak eta abar. Urteko kudeaketa txostena burutzeari buruzko informazioa.
- 4.- Galdera, zalantza eta kritiketarako auzokideen-  
tzako txanda irekia. Gaiak taldekatzen saiatuko da. Helburu nagusia Arraño bizi direnen kezken argazki eguneratua eskuratzea da.
- 5.- Alkatearen, udal teknikarien eta presente dau-  
den talde politiko bakoitzeko ordezkari banaren erantzun txanda.
- 6.- Auzokideentzako gaien puntualizazio edo sakontzerako txanda azkarra.
- 7.- Asanbladaren itxiera alkatearen eskutik.

\*\*\* Idazkari gisa jardungo duen udal teknikari batek planteatzen diren gai guztien oharrak jasoko ditu, kexu, galdera, ekarpen edo iradokizun gisa sailkatuz.

Beste udal teknikari batek moderatzaile gisa jardungo du.

Asanblada ospatu eta egun gutxira auzoan honako orri honen tankerako bat banatuko da, asanbladaren akta jasoz. Bertan planteatutako gai guztiak jasoko dira, baita bakoitzari emandako erantzunak ere. Horrela, hurrengo asanbladetarako erreferentzia gisa baliogarri izango den euskarri horrekin bertaratzerik izan ez dutenei informazioa luzatu nahi zaie.

## PROPUESTA DE ORDEN DEL DÍA:

- 1.- Aprobación de la propuesta de Orden del Día.
- 2.- Solicitud de opinión por parte del ayuntamiento sobre el mecanismo de asambleas de barrio de cara al futuro.
- 3.- Breve presentación de la situación actual del ayuntamiento tras la incorporación de la nueva corporación surgida tras las elecciones de junio: Situación económica, ordenanzas, relaciones con Diputación y otras instituciones, etc. Información sobre la realización de un informe de gestión anual.
- 4.- Turno abierto de preguntas, dudas y críticas por parte de los vecinos y vecinas. Se procurarán agrupar por temas. El principal objetivo es obtener una radiografía actualizada de las preocupaciones de las personas que viven en Arraño.
- 5.- Ronda de respuesta del alcalde, de los técnicos municipales y de los grupos políticos presentes.
- 6.- Turno rápido de puntualizaciones o ampliación de cuestiones por parte de los vecinos.
- 7.- Cierre de la asamblea por parte del alcalde.

\*\*\* Un técnico municipal que ejercerá de secretario/a, tomará nota de todas las cuestiones que se planteen, clasificándolas como quejas, preguntas, aportaciones o sugerencias.

Otro técnico municipal ejercerá de moderador

Unos días después de la asamblea se buzoneará en la zona una hoja similar a esta donde se recogerá el acta de la asamblea. En ella aparecerán todos los temas planteados así como las respuestas a cada uno de ellos, con el objetivo de informar a quienes no hayan podido asistir, y con la intención de que sirva de referencia para posteriores asambleas.